 - Préstamos participativos a empresas que se encuentren dentro de su ámbito de actividad principal, cuya rentabilidad esté completamente ligada a los beneficios;
 - Hasta el 30% del total del activo computable en otros préstamos participativos a empresas que se encuentren dentro de su ámbito de actividad principal.
- El resto de su activo computable no sujeto al coeficiente anterior, podrá mantenerse en:
 - Valores de renta fija negociados en mercados organizados;
 - Participaciones en el capital de empresas, excepto en sociedades de capital riesgo;
 - Efectivo, o demás activos especialmente líquidos que reglamentariamente se precisen;
 - Préstamos participativos;
 - Financiación de cualquier tipo a empresas participadas.
- No podrá invertir más del 25% de su activo computable en una misma empresa en el



hasierako unean, ezta sozietate-talde bereko enpresetan % 35 baino gehiago ere.

2019ko abenduaren 31n, Sozietateak ez du betetzen baldintza hau: bere aktibo konputagarriaren % 60, gutxienez, bere jarduera nagusiaren xede diren enpresen kapitaleko partaidetzetan izatea, baina 2020ko maiatzean, urteko kontu hauek egin baino lehen, Multiverse Computing SL enpresan 250 mila euroko inbertsioa egitea onartu da eta, beraz, ez-betetze hori zuzendu ahal izango da.

Era berean, Sozietatea Gipuzkoako sozietateen gaineko zerga garatzen duen urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauari lotuta dago. Sozietateak hainbat zerga-onura dauzka.

- Ondare-eskualdatzeen gaineko zerga: sozietateok ez daukate zerga ordaindu beharrik eraketagatik eta kapitala handitzeagatik, «sozietate-eragiketa» modalitatean. Sozietatearen eragiketen zerga-oinarrian % 100eko murriztapena, hala nola osaketan, zabaltzean eta funtsen bat-egitean.
 - Sozietateen gaineko zerga: araubide orokorraren arabera zergapetuta, honako espezialitate hauekin:
 - % 100eko kenkariak dibidenduengatik.
 - Partaidetzako enpresen kapitalean diren akzio eta partaidetzak besterenduta eskuratutako ondare-hazkundeak gabetuta egongo dira, betiere balioak erosi eta besterendu bitartean urtebete baino gehiago eta hamabi urte baino gutxiago igaro badira.
 - Partaideek Sozietatearen ondareari egindako ekarpenen % 20ko kenkaria izango dute, hainbat muga eta baldintzarekin betiere.

momento inicial, ni más del 35% en empresas pertenecientes al mismo grupo de sociedades.

Al 31 de diciembre 2019 la Sociedad no cumple con el requisito de mantener como mínimo el 60% de su activo computable en participaciones en el capital de empresas que sean objeto de su actividad principal, si bien, en mayo de 2020, antes de la formulación de las presentes cuentas anuales, se ha aprobado una inversión por importe de 250 miles de euros en la sociedad Multiverse Computing, S.L., de tal forma que dicho incumplimiento pueda ser objeto de subsanación.

Asimismo, la Sociedad también está sujeta a la Norma Foral 2/2014, de 17 de enero, que desarrolla el Impuesto sobre Sociedades en Gipuzkoa. La Sociedad cuenta con los siguientes beneficios fiscales:

- Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales: La constitución y aumento de capital de estas sociedades están exentas del impuesto en la modalidad de "operaciones societarias". Reducción del 100% en la base imponible en las operaciones societarias tales como constitución, ampliación y fusión de fondos.
 - Impuesto sobre Sociedades: Tributación conforme al régimen general con las siguientes especialidades:
 - Deducción por dividendos del 100%.
 - Exención de los incrementos de patrimonio que se obtengan de la enajenación de acciones y participaciones en el capital de las empresas en que participen, siempre que haya transcurrido más de un año y menos de doce años desde la adquisición de los valores hasta el momento de su enajenación.
 - Los partícipes podrán deducir el 20% de las aportaciones al patrimonio de la Sociedad, sujeto a ciertos límites y condiciones.



2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

2.1 Erakundeari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparrua

Sozietatearen administratzaileek sozietateari aplikagarri zaion finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorri aurkeztu dituzte urteko kontu hauek, hain zuzen ere, honako hauetan ezarritakoari jarraikiz:

- 11/2008 Zirkularra, abenduaren 30ekoa, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarena.
- 22/2014 Legea, azaroaren 12koa, arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituenak.
- Merkataritzako Kodea eta merkataritza-arloko gainerako legeria.
- 1514/2007 Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorra.
- Kontabilitate Plan Orokorra eta haren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontu Ikuskaritzako Institutuak onartutako arauak, baita Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutakoak ere, nahitaez bete beharrekoak guztiak.
- Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudia.

2.2 Irudi fidela

Urteko kontuak Funtsaren kontabilitate-erregistroetatik eskuratu dira, eta aurretik aipatu dugun kontabilitate-arauei eta arrisku-kapitaleko erakundeen informazio erreserbatuei buruzko Zirkularrean ezarritako balioespenerizpideak eta formatua kontuan hartuta daude aurkeztuta; esandako Zirkularrak arautzen ez dituen auzietarako, berriz, Kontabilitate Plan Orokorrearekin bateragarria den Espainiako

2. Bases de presentación de las cuentas anuales

2.1 Marco normativo de información financiera aplicable a la Entidad

Estas cuentas anuales se han formulado por los Administradores de la Sociedad de acuerdo con el marco normativo de información financiera aplicable a la misma, que es el establecido en

- Circular 11/2008, de 30 de diciembre, de la Comisión Nacional del Mercado de Valores.
- Ley 22/2014, de 12 de noviembre, reguladora de las Entidades de Capital Riesgo, otras Entidades de Inversión Colectiva de Tipo Cerrado y las Sociedades Gestoras de Entidades de Inversión Colectiva de Tipo.
- Código de Comercio y restante legislación mercantil.
- Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007.
- Las normas de obligado cumplimiento aprobadas por el Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas en desarrollo del Plan General de Contabilidad y sus normas complementarias, así como las normas de obligado cumplimiento aprobadas por la Comisión Nacional del Mercado de Valores.
- El resto de normativa contable española que resulte de aplicación.

2.2 Imagen fiel

Las cuentas anuales han sido obtenidas de los registros contables de la Sociedad y se presentan de acuerdo con formatos y criterios de valoración establecidos en la Circular anteriormente mencionada, sobre normas contables, cuentas anuales y estados de información reservada de las entidades de capital-riesgo y para las cuestiones no reguladas específicamente en dicha Circular,



indarreko kontabilitate-araudia jarraitu da (esandako kontabilitate-plana azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartu zuen). Hala, kontuok Funtsaren 2019ko abenduaren 31ko finantza-egoeraren eta ondarearen irudi fidela erakusten dute, baita data horretan amaitu den ekitaldian sortutako eskudiru-fluxuen eta ondare garbiaren aldaketena ere. Urteko kontu hauek Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek formulatu dituzte (1. oharra), eta aipatutako sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu. Espero izatekoa denez, inongo aldaketarik gabe onartuko dira. 2018ko ekitaldiaren urteko kontuak, berriz, 2019ko ekainaren 28ko Batzar Nagusian onartu ziren.

2.3 Nahitaezkoak ez izan arren, aplikatu diren kontabilitate-printzipioak

Ez da aplikatu nahitaezkoa ez den kontabilitate-printzipiorik. Horrez gain, Sozietate Kudeatzaileko administratzaileek, urteko kontu hauek egitean, kontuan hartu dituzte nahitaez aplikatu beharreko kontabilitateko printzipio eta arauak. Printzipio eta arau horiek eragin garrantzitsua dute urteko kontuetan. Ez dago aplikatu ez den nahitaezko kontabilitate-printzipiorik.

Ondarearen emaitzak eta zehaztapenak sentikorrak izaten dira Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak urteko kontuak prestatzeko balaitutako kontabilitate-printzipio eta -politikekin, baita haiek jarraitutako balorazio-eta estimazio-irizpideekin ere.

2.4 Ziurgabetasunaren balorazioari eta estimazioari buruzko alderdi kritikoak

Erantsitako urteko kontuak prestatzean, Sozietate Kudeatzaileko administratzaileek eginiko zenbatespenak erabili dira, erregistraturiko aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu edo konpromisoetako batzuk baloratzeko.

con la normativa contable española contable vigente compatible con el Plan General de Contabilidad aprobado por el Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre, de forma que muestran la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2019 y de los resultados de sus operaciones, de los cambios en el patrimonio neto y de los flujos de efectivo que se han generado durante el ejercicio terminado en esa fecha. Estas cuentas anuales, que han sido formuladas por los Administradores de la Sociedad (Nota 1), se someterán a aprobación por la Junta General de Accionistas de la Sociedad, estimándose que serán aprobadas sin modificación alguna. Por su parte, las cuentas anuales del ejercicio 2018 fueron aprobadas por la Junta General de Accionistas de la Sociedad en su sesión celebrada el 28 de junio de 2019.

2.3 Principios contables no obligatorios aplicados

No se han aplicado principios contables no obligatorios. Adicionalmente, los Administradores de la Sociedad han formulado estas cuentas anuales teniendo en consideración la totalidad de los principios y normas contables de aplicación obligatoria que tienen un efecto significativo en dichas cuentas anuales. No existe ningún principio contable que, siendo obligatorio, haya dejado de aplicarse.

Los resultados y la determinación del patrimonio son sensibles a los principios y políticas contables, criterios de valoración y estimaciones seguidos por los Administradores de la Sociedad para la elaboración de las cuentas anuales.

2.4 Aspectos críticos de la valoración y estimación de la incertidumbre

En la elaboración de las presentes cuentas anuales se han utilizado estimaciones realizadas por los Administradores de la Sociedad para valorar algunos de los activos, pasivos, ingresos, gastos y compromisos que



Oro har, honako hauei buruzkoak dira zenbatespen horiek:

- Aktibo jakin bazuen narriaduragatik izan daitezkeen galeren ebaluazioa (6 oharra).
- Finantza-tresna jakin batzuen arrazoizko balioa (4.3, 4.4 eta 6 oharrek). Aktibo ez-korronteen balorazioak eskatzen du estimazioak egitea, arrazoizko balioa zehazte aldera, narriadura posibleak ebaluatu ahal izateko. Arrazoizko balio hori zehazteko, Funtzaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek aurreikusitakoaren arabera, alderdi interesatuen artean balio- transakzioak behar bezala informatuta eta elkarren arteko independentzia-baldintzetan gertatu ez diren kasuetarako, nola eta ebidentzia hoberik ez den, erakundearen (edo talde konsolidatuaren) ondare garbian esandako inbertsioei dagokien kontabilitate-balio teorikoa edo ondare garbiaren irizpidea erabiliko da, balorazioaren unean diren kapital-irabazi edo -galera tazituen zenbatekoan zuzenduta.
- Sozietate Kudeatzaileari emango zaion komisio aldagarriaren zenbatekoa ezartzeko eta erregistratzeko, Sozietate Kudeatzaileak kudeatzen dituen funtsen itxiera-estimaziorik onena eta administratzen dituen sozietateak hartu dira kontuan (1., 10., eta 12. oharrek).
- Nahiz eta estimazio horiek 2019ko ekitaldiaren itxierako informaziorik onenaren arabera egin diren, baliteke etorkizunean gerta litezkeen gertaerek esandako estimazioak aldaraztea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan; hori, edonola ere, abenduaren 30eko 11/2008 Zirkularrean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari buruzkoan, ezarritakoari jarraituz egingo litzateke, modu prospektiboan.

figuran registrados en ellas. Básicamente, estas estimaciones se refieren a:

- La evaluación de posibles pérdidas por deterioro de determinados activos (Nota 6).
- El valor razonable de determinados instrumentos financieros (Notas 4.3, 4.4 y 6). La valoración de los activos no corrientes requiere la realización de estimaciones con el fin de determinar su valor razonable, a los efectos de evaluar un posible deterioro. Para determinar este valor razonable los Administradores de la Sociedad estiman, para aquellos casos en que no se hayan producido transacciones recientes del valor en condiciones de independencia mutua entre partes interesadas y debidamente informadas, que el mismo se determinará, salvo mejor evidencia, utilizando el criterio del patrimonio neto o valor teórico contable que corresponda a dichas inversiones en el patrimonio neto de la entidad (o del grupo consolidado), corregido en el importe de las plusvalías o minusvalías tácitas, netas de impuestos, existentes en el momento de la valoración.
- El importe de la comisión variable que se otorgará a la Sociedad Gestora ha sido establecida y registrada en base a la mejor estimación de cierre de los Fondos gestionados y las sociedades que la Sociedad Gestora administra (Notas 1, 10 y 12).
- A pesar de que estas estimaciones se han realizado en función de la mejor información disponible al cierre del ejercicio 2019, pudiera ser que acontecimientos que, en su caso, tengan lugar en el futuro obliguen a modificar dichas estimaciones (al alza o a la baja) en próximos ejercicios, lo que se haría conforme a lo establecido en la Circular 11/2008, de 30 de diciembre, de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, de forma prospectiva.



2.5 Informazioaren konparazioa

2018ko ekitaldiari dagokion memoria honetan jasotako informazioa 2019ko ekitaldiko informazioarekin alderatuta aurkezten da.

2.6 Partida multzokatuak

Balantzeko, galdu-irabazien kontuko, ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko eta eskudiru-fluxuaren egoera-orriko zenbait partida taldekatuta aurkeztu dira errazago uler daitezen; hala ere, informazioaren garrantziaren arabera, banaka eskaini dira dagozkien memoriako oharretan.

2.7 Kontabilitate-irizpideen aldaketak-

2019ko ekitaldian ez da aldaketa handirik gertatu kontabilitate-irizpideetan, 2018ko ekitaldian aplikatutako irizpideekin alderatuta.

2.8 Akatsen zuzenketa

Erantsitako urteko kontuak egiteko orduan ez da errore nabarmenik antzeman, eta ez dira, beraz, 2018eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako zenbatekoak berriro adierazi behar izan.

2.9 Ingurumen-inpaktua

Funtsaren jarduerak direla eta, ez du ingurumenari dagokionez erantzukizunik, gasturik, aktiborik, hornidurarik zein arriskurik; ez behintzat sozietatearen ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei dagokienez adierazgarria izan litekeenik. Hori dela eta, memoria honetan ez dugu ingurumen-arloko informazioari buruzko berariazko banakatzerik egin.

2.5 Comparación de la información

La información contenida en esta memoria referida al ejercicio 2018, se presenta, a efectos comparativos con la información del ejercicio 2019.

2.6 Agrupación de partidas

Determinadas partidas del balance, de la cuenta de pérdidas y ganancias, del estado de cambios en el patrimonio neto y del estado de flujos se presentan de forma agrupada para facilitar su comprensión, si bien, en la medida en que sea significativa, se ha incluido la información desagrupada en las correspondientes notas de la memoria.

2.7 Cambios de criterios contables

Durante el ejercicio 2019 no se han producido cambios de criterios contables significativos respecto a los criterios aplicados en el ejercicio 2018.

2.8 Corrección de errores

En la elaboración de las cuentas anuales adjuntas no se ha detectado ningún error significativo que haya supuesto la reexpresión de los importes incluidos en las cuentas anuales del ejercicio 2018.

2.9 Impacto medioambiental

Dadas las actividades a las que se dedica la Sociedad, ésta no tiene responsabilidades, gastos, activos, ni provisiones o contingencias de naturaleza medioambiental que pudieran ser significativos en relación con el patrimonio, la situación financiera y los resultados de la misma. Por este motivo, no se incluyen desgloses específicos en la presente memoria respecto a información de cuestiones medioambientales.



3. Emaizten aplikazioa

Sozietateko administratzaileek 2019ko ekitaldiko emaitzaren banaketa-proposamen hau egin dute, Akziodunen Batzar Nagusiak onar dezan aurkeztuko dena:

3. Aplicación de resultados

La propuesta de distribución del resultado del ejercicio 2019, formulada por los Administradores de la Sociedad y que se espera sea aprobada por la Junta General de Accionistas, es la siguiente:

	Euroak/ Euros
Banaketaren oinarria / Base de reparto:	
Ekitaldiaren emaitza / Resultado del ejercicio	9.768
	9.768
Banaketa / Distribución:	
Lege erreserbak / Reserva legal	977
Aurreko ekitaldietako emaitza / A resultados de ejercicios anteriores	8.791
Guztira / Total	9.768

4. Erregistratzeko eta baloratzeko arauak

Sozietatearen 2019 eta 2018ko ekitaldiei dagozkien urteko kontuak prestatzeko erabilitako erregistro-eta balorazio-irizpide nagusiak honako hauek dira:

4. Normas de registro y valoración

Los principales criterios de registro y valoración utilizados en la elaboración de las cuentas anuales de la Sociedad correspondientes a los ejercicios 2019 y 2018 son los siguientes:

4.1 Inbertsioak taldeko enpresetan, talde anitzetan eta elkartuetan

Funtsak dauzkan finantza-inbertsio batzuk biltzen ditu, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak (dela taldeko enpresetan, talde anitzetan edo elkartuetan).

«Erakunde mendekotzat» edo «taldeko enpresatzat» hartzen dira erakundeak FUNTSAK haien gainean kontrolatzeko ahalmena duenean; ahalmen hori agertuko da, oro har baina ez bakarrik, partaidetzako erakundeen eskubide politikoaren gainean gutxienez % 50eko jabetza izatean, zuzenean zein zeharka, edota, ehuneko hori baino apalagoa izanda ere, esandako kontrola FUNTSAREN esku ipintzen baldin bada, beste akziodun batzuekin hitzarmenak eginez. Kontrolatzat hartzen da erakunde baten finantza- eta operazio-politikak gobernatzeko ahalmena, bere jardueren mozkinak eskuratzeko xedez.

4.1 Inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas

Incluye ciertas inversiones financieras que tiene la Sociedad en empresas del grupo, multigrupo y asociadas.

Se consideran "entidades dependientes" o "empresas del grupo" aquellas sobre las que la Sociedad tiene capacidad para ejercer control, capacidad que se manifiesta, en general aunque no únicamente, por la propiedad, directa o indirecta, de al menos el 50% de los derechos políticos de las entidades participadas o aún, siendo inferior o nulo este porcentaje si, como en el caso de acuerdos con otros accionistas, se otorga a la Sociedad dicho control. Se entiende por control el poder de gobernar las políticas financieras y operativas de una entidad con el fin de obtener beneficios de sus actividades.



«Elkarrekiko negoziotzat» edo «talde anitzeko enpresatzat» hartzen dira enpresak, mendeko erakunde ez izanik, elkarren artean lotu gabeko bi erakunde edo gehiagok kontrolatuta daudenean. Hori kontratu-akordioen bidez nabarmentzen da, eta, haien arabera, bi erakunde edo gehiagok («partaideak») erakundeetan parte hartzen dute («talde anitza»), eragiketak egiten dituzte edota aktiboak edukitzen dituzte, hala, edozer finantza- edo operazio-erabaki estrategikok partaide guztien ahobatezko baimena beharko du.

«Enpresa elkartuak», berriz, zera dira: Funtsak haien gainean eragin nabarmena izateko gaitasuna duenean, nahiz eta kontrola edo baterako kontrola izan ez. Alde horretatik, enpresa baten kudeaketan eragin garrantzitsua dagoela ulertuko da, baldintza hauek betetzen direnean:

- 1) Funtsak enpresan parte hartzen badu, eta
- 2) Partaidetzako enpresaren finantza- eta ustiapen-politikako erabakietan esku hartzeko ahalmena badaukate, kontrola edukitzera iritsi gabe.

Gainera, eragin garrantzitsuaren ezaugarri izango dira segidan aipatzen diren egoera hauek ere:

- Partaidetzako enpresaren administrazio-kontseiluan edo organo baliokidean ordezkartzea edukitzea;
- Politikak finkatzeko prozesuetan parte hartzea;
- Partaidetzako enpresarekin transakzio garrantzitsuak egitea;
- Zuzendaritzako kideak trukitzea; edo
- Funtsezko informazio teknikoaren ematea.

Gaitasun hori, oro har, partaidetza batekin gauzatzen da (zuzeneko zein zeharkakoa); hain zuzen ere, partaidetzako erakundearen boto-eskubidearen % 20koa edo hortik

Se consideran "negocios conjuntos" o "empresas multigrupo" los que, no siendo entidades dependientes, están controlados conjuntamente por dos o más entidades no vinculadas entre sí. Ello se evidencia mediante acuerdos contractuales en virtud de los cuáles dos o más entidades ("participes") participan en entidades ("multigrupo"), realizan operaciones o mantienen activos de forma tal que cualquier decisión estratégica de carácter financiero u operativo que los afecte requiere el consentimiento unánime de todos los partícipes.

Las "empresas asociadas" son aquellas sobre las que la Sociedad tiene capacidad para ejercer influencia significativa, aunque no control o control conjunto. En este sentido, se entiende que existe influencia significativa en la gestión de una empresa, cuando se cumplan los siguientes requisitos:

- 1) El Fondo participa en la empresa, y
- 2) Se tenga el poder de intervenir en las decisiones de política financiera y de explotación de la participada, sin llegar a tener el control.

Asimismo, la existencia de influencia significativa se podrá evidenciar a través de cualquiera de las siguientes vías:

- Representación en el consejo de administración u órgano equivalente de dirección de la empresa participada;
- Participación en los procesos de fijación de políticas;
- Transacciones de importancia relativa con la participada;
- Intercambio de personal directivo; o
- Suministro de información técnica esencial.

Habitualmente, esta capacidad se manifiesta en una participación (directa o indirecta) igual o superior al 20% de los derechos de voto de la entidad participada. La Sociedad mantiene



gorakoa. Funtsak boto-eskubideen % 20ko baino gutxiagoko partaidetzei eusten die sozietate jakin batzuetan. Sozietate Kudeatzailearen administratzaileen iritzian, esandako partaidetza horiek behar beste gaitasun ematen die eragin nabarmena izateko, aurrez horretarako aipatu ditugun baldintzak betetzen baitira (6 oharra).

4.2 Taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta enpresa elkartuen sailkapena

Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak hasierako kapital bezala sailka daitezke, dagokion kasuan. Hasierako kapitaleko inbertsiotzat hartzen dira kotizatu gabeko eta hiru urte baino gutxiagoko konpainietako partaidetzak. Horrez gain, hiru urte baino gehiago edukita, azkeneko bost urteetan bi urtez jarraian emaitza positiborik izan ez duten erakundeetan egindako inbertsioak ere hala hartuko dira. Esandako emaitza horiek aditu independente batek egiaztatuta egon beharko dute. Azken definizio hori ezingo da aplikatu balioan hasierako inbertsioa egin eta hiru urte igaro ostean.

4.3 Taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta enpresa elkartuen balioespena

Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak, hasiera batean, euren kostuan balioesten dira; hau da, entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi egozgarri zaizkion transakzio-kostuak eta, hala badagokio, eskuratuta edukiko lituzkeen harpidetza-eskubide lehenetsien eta tankerakoen zenbatekoa.

Ondoren eta hala badagokio, narriaduragatiko balorazio-zuzenketen zenbateko metatua kenduko zaio kostuari. Balorazio-zuzenketaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontabilitateko balioaren eta zenbateko berreskuragarriaren arteko aldea hartuko da kontuan. Ebidentzia hoberik ez den artean, aktibo mota horren narriadura balioesteko inbertsioaren arrazoizko

participaciones inferiores al 20% de los derechos de voto en determinadas sociedades. En opinión de los Administradores de la Sociedad, dichas participaciones otorgan capacidad suficiente para ejercer influencia significativa, dado que se cumplen los requisitos anteriormente mencionados para ello (Nota 6).

4.2 Clasificación de las empresas del grupo, multigrupo y asociadas

Las inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas pueden clasificarse, en caso que corresponda, como capital inicio. Se entiende por inversiones en capital inicio aquellas participaciones en compañías no cotizadas con menos de tres años de existencia. Adicionalmente, también se consideran aquellas inversiones correspondientes a entidades que, teniendo más de tres años de existencia, no han obtenido resultados positivos durante un período de dos años consecutivos en los últimos cinco y dichos resultados hayan sido verificados por un experto independiente. Esta última definición no podrá aplicarse transcurridos tres años desde la inversión inicial en el valor.

4.3 Valoración de las empresas del grupo, multigrupo y asociadas

Las inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas se valoran inicialmente a su coste, que equivale al valor razonable de la contraprestación entregada más los costes de transacción que les sean atribuibles y, en su caso, el importe de los derechos preferentes de suscripción y similares que hubieran adquirido.

Posteriormente, se valoran por su coste menos, en su caso, el importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro. El importe de la corrección valorativa será calculado como la diferencia entre su valor en libros y el importe recuperable. Salvo mejor evidencia, en la estimación del deterioro de esta clase de activos se toma en consideración el



balioa hartuko da kontuan. Arrazoizko balioa zera izango da, balioaren beraren transakzio berrien balioa, interesatutako aldeek behar bezala informatuta eta elkarrekiko independentzia-baldintzetan hartuak. Berriki transakziorik izan ez den kasuetan eta ebidentzia hoberik izan ezean, arrazoizko balioa zehazteko, ondare garbiaren irizpidea edota erakundearen (edota talde kontsolidatuaren) ondare garbiko inbertsioei dagokien kontabilitate-balio teorikoa hartuko da, kapital-irabazi eta -galera tazituen zenbatekoan zuzenduta, zerga gabe, balorazioaren garaian diren bezala.

En relación a las plusvalías tácitas, se distingue entre:

- a) Erakundearen edo talde kontsolidagarriaren ondare-elementu konkretuei egozgarri zaizkien kapital-irabazi tazituak; hala kontsideratzeko urteko aldizkakotasunarekin identifikatu eta kalkulatu beharko dira eta aditu independente batek egiaztatuta egon beharko dute; higiezinaren kasuan, berriz, Espainiako Bankuaren erregistro ofizialean inskribatutako tasazio-sozietate independente batek tasatuta egon beharko dute, betiere balorazioaren unean irauten badute.
- b) Partaidetzako erakundearen edo haren talde kontsolidatuaren ondare elementu konkretuei egozgarri ez zaizkien kapital-irabazi tazituak, edota ibilgetze ukiezinei dagozkienak; hala hartuko dira baldin eta, transakzioaren prezioko zati izanik, erosteko garaian identifikatu eta kalkulatu badira eta osteko balorazioaren garaian jarraitzen badute, betiere efektibitateari buruzko zalantza arrazoizkorik ez denean.

Nolanahi ere, ordena-kontuetan jakinarazten da kapital-irabazi estalien zenbatekoa, zerga gabe, inbertsioaren kostua eta arrazoizko balioa konparatuta eskuratutakoa.

valor razonable de la inversión. Su valor razonable es el valor de las transacciones recientes del propio valor en condiciones de independencia mutua entre partes interesadas y debidamente informadas. En aquellos casos que no se hubiesen producido transacciones recientes y salvo mejor evidencia, el valor razonable se determina utilizando el criterio de patrimonio neto o valor teórico contable que corresponda a las inversiones en el patrimonio neto de la entidad (o del grupo consolidado), corregido en el importe de las plusvalías y minusvalías tácitas, netas de impuestos, existentes en el momento de la valoración.

En relación a las plusvalías tácitas, se distingue entre:

- a) Plusvalías tácitas imputables a elementos patrimoniales concretos de la entidad o grupo consolidable, que sólo pueden considerarse como tales si hubieran sido identificadas y calculadas con periodicidad anual y se encuentren verificadas por experto independiente o, en caso de inmuebles, mediante tasación de una sociedad de tasación independiente inscrita en el Registro Oficial del Banco de España, y siempre que subsistan en el momento de la valoración.
- b) Plusvalías tácitas que no sean imputables a elementos patrimoniales concretos de la entidad participada, o su grupo consolidado, o que son relativas a inmovilizaciones intangibles, que sólo podrán considerarse como tales cuando, formando parte del precio de la transacción, hayan sido identificadas y calculadas en el momento de la adquisición y subsistan en el de la valoración posterior y siempre que no se puedan albergar dudas razonables sobre su efectividad.

En cualquier caso, se informa en cuentas de orden del importe de las plusvalías latentes netas de impuestos, determinadas por comparación del coste de la inversión con su valor razonable.



Horrez gain, hainbat kasuk murriztu egiten dute partaidetzen arrazoizko balioa kotizatu gabeko sozietateen kapitalean, dagokion eskubidea aitortzen denean edota esandako operazioak egikaritzen direnean; esaterako, dibidenduak kobratzean, kapital soziala murriztu izanagatik egindako ekarpenen itzulketan eta akziodun eta partaideei egindako beste banaketa batzuetan, baita harpidetze-eskubide preferenteen salmentaren zenbatekoa edota haien banaketa ondoren egikaritzean (zeinaren balioa oro har onartutako balorazio-formularen batez egiten baita).

Era berean, kontuan hartzen dira, inbertitzen den enpresaren kontuak ikuskatuta baldin badaude, itxitako azken ekitaldiari dagozkion ikuskaritza-txostenean jasotako doikuntzak, hain zuzen ere, kontabilitateko balio teorikoa kalkulatzeko erabiltzen diren osteko kontabilitate-egoeretan jaso gabekoak.

Inbertsioen arrazoizko balioa, era berean, praktikan oro har onartzen diren beste balioespen-eredu eta -teknika batzuen bidez ere zehaztu ahal izango da. Erabil daitezkeen balorazio-tekniken eta -ereduen artean, honako hauek ageri dira:

- Berdin samarrak diren beste aktibo batzuen arrazoizko balioaren erreferentziak, onartutako metodoak eta teknikak aplikatuta.
- Etorkizunerako estimatutako eskudiru-fluxuen deskontu-metodoak.
- Aukerak balioesteko oro har erabiltzen diren ereduak.

Erabilitako balorazio-ereduak eta -teknikak Sozietate Kudeatzailearen administrazio-organoak onartuta egon beharko dute, bai eta behar bezala dokumentatuta ere. Era berean, ahalik eta gehien baliatu behar dituzte merkatuan ikus daitezkeen datuak eta merkatuan parte hartzen dutenek prezioa finkatzeko kontuan hartuko lituzketen faktoreak, eta ahalik eta gutxien jo behar dute

Adicionalmente, los dividendos cobrados, la devolución de aportaciones por reducción de capital social y otras distribuciones a accionistas y partícipes, así como el importe de venta de derechos preferentes de suscripción o la segregación de los mismos para ejercitarlos, cuyo valor se calcula aplicando alguna fórmula valorativa de general aceptación, disminuyen el valor razonable de las participaciones en el capital de sociedades no cotizadas, en el momento en que se declare el correspondiente derecho o se hagan efectivas dichas operaciones.

Del mismo modo, se tienen en cuenta, en el caso de que las cuentas de la empresa en la que se invierte estén auditadas, los ajustes puestos de manifiesto en el informe de auditoría correspondientes al último ejercicio cerrado, que no se encuentren recogidos en los estados contables posteriores que se utilicen para calcular el valor teórico contable.

El valor razonable de las inversiones también podrá ser determinado mediante la aplicación de otros modelos y técnicas de valoración generalmente aceptados en la práctica. Entre los modelos y técnicas de valoración a utilizar se incluyen:

- Referencias al valor razonable de otros activos que sean sustancialmente iguales, mediante la aplicación de métodos y técnicas reconocidos.
- Métodos de descuento de flujos de efectivo futuros estimados.
- Modelos generalmente utilizados para valorar opciones.

Los modelos y técnicas de valoración empleados deberán ser aprobados por el órgano de administración de la Sociedad Gestora y deberán estar debidamente documentados. Asimismo, maximizarán el uso de datos observables de mercado y otros factores que los participantes en el mercado considerarían al fijar el precio, limitando en todo lo posible el



konsiderazio subjektiboetara eta kontrastatu edo behatu ezin diren datuetara.

Dena den eta edozer izanik ere inbertsioen arrazoizko balioa zehazteko balorazio-eredua edo -teknika, kontuan izan beharko dira arrisku-kapitalaren erakundeen inbertsioen balioa alda edo eralda dezaketen gertakari edo inguruabar kontingenteak, hain zuzen ere, sortzen diren garaitik edota haien berri dugunetik, eta, batez ere, honako hauek:

- Hasiera batean proiektatutakoetatik nabarmen txikiagoak edo handiagoak diren emaitzak, balioaren murrizketa edo handitze iraunkorra eragiten dutenak;
- Balio-jaulkitzaileen negozio- edo finantza-arazoak agertzea, finantzaketa gehigarriaren beharra planteatzen badute edota jardueretan zein taldearen enpresetan berregituraketak eginarazten dituztenean;
- Berrerosteko balizko konpromisoak, eskubideak edota itunak izatea, aurrez zehaztutako prezioarekin;
- Inbertsioa egin ostean sortu edo ezagutu diren beste gertaera edo inguruabar batzuk, behar besteko garrantzikoak eta froga argiak dituztenak, baldin eta zehazten badute puntu honetako lehendabiziko paragrafoan adierazitako kapital-irabazi tazituen balorazio handiagoa edo txikiagoa.

Sozietate Kudeatzaileak aldian-aldian ebaluatu beharko ditu erabiltzen dituen balorazio-metodoak eta -teknikak, eta merkatuko datu edo indize behagarrietan oinarritutako prezioak erabiliko ditu erreferentzia moduan, eskuragarri eta aplikagarri direnean.

Balorazio-teknika edo -metodo horietatik batek ere ez baldin badu aukera ematen inbertsioaren arrazoizko balioa modu fidagarrian egiteko, balioespenerako zera egingo da, kostua ken

empleo de consideraciones subjetivas y de datos no observables o contrastables.

En cualquier caso, cualquiera que sea el modelo o técnica de valoración utilizado, para determinar el valor razonable de estas inversiones, deberá tenerse en cuenta los hechos o circunstancias de carácter contingente que puedan alterar o transformar el valor de las inversiones de las entidades de capital-riesgo, desde el mismo momento en que se originen o se tenga conocimiento de ellos y, en especial, los siguientes:

- Los resultados significativamente inferiores o superiores a los inicialmente proyectados que conduzcan a una disminución o apreciación permanente del valor.
- La aparición de problemas financieros o de negocio del emisor de los valores que planteen la necesidad de obtener financiación adicional o llevar a cabo reestructuraciones en sus actividades o en empresas del grupo.
- La existencia de eventuales compromisos, derechos o pactos de recompra con precio predeterminado.
- Otros hechos o circunstancias de suficiente entidad y clara constancia que surjan o se conozcan con posterioridad a la fecha en que se realizó la inversión y que determinen fehacientemente una valoración inferior o superior de las plusvalías tácitas a que se refiere el párrafo primero de este punto.

La Sociedad Gestora deberá evaluar la efectividad de los modelos y técnicas de valoración que utilice de manera periódica, empleando como referencia en caso de que estén disponibles y resulten aplicables los precios basados en datos o índices observables de mercado.

En caso de que ninguno de los modelos y técnicas de valoración permitan determinar el valor razonable de la inversión con fiabilidad, ésta se valora a su coste menos, en su caso, el



narriaduragatik izandako balorazio-zuzenketen zenbateko metatua.

Edonola ere, kapital-irabazi estaliak, zerga gabe, inbertsio-kostua eta arrazoizko balioa alderatuta zehazten direnak, ordena-kontuen «Kapital-irabazi estaliak (garbiak zerga-efektuetarako)» epigrafean daude jasota.

Narriaduragatik izandako balorazio-zuzenketak eta, hala dagokionean, haien itzulketa gastu bezala edo diru-sarrera bezala kontabilizatuko dira, hurrenez hurren, galdu-irabazien kontuko «Inbertsio finantzarioen zorroaren arrazoizko balioen emaitzak eta aldakuntzak (garbia) – Inbertsio finantzarioen narriadurak eta galerak» izeneko epigrafean. Narriaduraren atzera-itzultzearen muga honako hau izango da: balio-narriadurarik erregistratu izan ez balitz atzera itzultzen den datan inbertsioak izango lukeen kontabilitate-balioa.

Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta elkartutako enpresetan egindako inbertsioetarako, aurreko atalean zehaztuta hasierako kapital bezala sailkatuta daudenean eta Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluaren irizpena denean enpresaren negozio-plana betetzen ari dela, narriaduragatik izandako balorazio-zuzenketak, hala behar izanez gero, ordena-kontuen «Taldearen hasierako kapitalaren narriadura» epigrafean jasoko dira.

4.4 Salgai dauden aktibo finantzarioak

i. Hasierako balorazioa

Salgai dauden finantza-aktiboak bere arrazoizko balioan baloratuko dira hasieran, beste ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, kontuan hartuko den arrazoizko balioaren baliokidea izango baita, eta zuzenean eragina izango duten transakzio-kostuak.

importe acumulado de las correcciones valorativas por deterioro.

No obstante, las plusvalías latentes netas de impuestos que se determinan por comparación del coste de la inversión con su valor razonable, se registran en el epígrafe "Plusvalías latentes (netas efecto impositivo)" de las cuentas de orden.

Las correcciones valorativas por deterioro y, en su caso, su reversión se contabilizarán como un gasto o un ingreso, respectivamente, en el epígrafe "Resultados y variación del valor razonable de la Cartera de Inversiones Financieras (neto) – Deterioros y pérdidas de inversiones financieras" de la cuenta de pérdidas y ganancias. La reversión del deterioro tiene como límite el valor en libros de la inversión que estaría en la fecha de reversión si no se hubiese registrado el deterioro del valor.

Para el caso de las inversiones en empresas del grupo, multigrupo y asociadas que sean clasificadas como capital inicio, tal y como se define en el apartado 4.3 anterior, cuando existe dictamen del Consejo de Administración de la Sociedad certificando que se está cumpliendo con el plan de negocio de la empresa, las correcciones valorativas por deterioro, en su caso, se registrarán en el epígrafe "Deterioro capital inicio grupo" de las cuentas de orden.

4.4 Activos financieros disponibles para la venta

i. Valoración inicial

Los activos financieros disponibles para la venta se valorarán inicialmente por su valor razonable, que, salvo evidencia en contrario, será el precio de la transacción, que equivaldrá al valor razonable de la contraprestación entregada, más los costes de transacción que les sean directamente atribuibles.



ii. Ondorengo balorazioa

Arrisku-kapitaleko enpresek salgai dauden finantza-aktiboen zorroen eta baloreen arrazoizko balioa kalkulatuko dute. Aktiboak arrazoizko balioan baloratuko dira, salmentan sor daitezkeen transakzio-kostuak kendu gabe. Balio arrazoizkoan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, finantza-aktiboak balantzeetatik kendu arte edo hondatzen diren arte. Hortaz, zenbatekoa horrela erregistratuta geratuko da galera eta irabazien kontuan.

Interes-tasak, interes-tasa efektibo metodoaren arabera kalkulatuko dira eta galdu-irabazien kontu korrontean erregistratuta egongo dira.

Kategoria honetako finantza-aktiboen arrazoizko balioa zehazteko, honako arauak aplikatuko dira:

a) Kotizatu gabeko Sozietateen ondare tresnak: interesatuek eta behar bezala informatutako alderdien arteko elkarrekiko independentziaren baldintzetan transakzioak gertatu ez badira, arrazoizko balioa zehaztuko da, froga hobeak izan ezean, ondare garbiaren edo kontabilitate-balio teoriko balioaren irizpidea kontuan harturik. Entitatearen (edo talde bateratuan) egindako inbertsioak, balioespenaren unean zeuden irabaziak edo galerak, zerga garbiaren zenbatekoarekin zuzenduak.

Gainbalio tazituei dagokionez, horrelaxe bereiztuko da:

- 1) Erakunde edo talde kontsolidatuaren aktibo espezifikoaren gainbalio tazituen atribuzioa, hau da, kontuan hartuko dira balantze gisa identifikatu eta kalkulatu ahal izanik, eta independente batek egiaztatu edo, higiezin kasuan, konpainiaren balioespenaren bidez, Espainiako Bankuaren Erregistro Ofizialean

ii. Valoración posterior

Las entidades de capital-riesgo calcularán, el valor razonable de cada uno de los valores e instrumentos de su cartera de activos financieros disponibles para la venta. Los activos se valorarán por su valor razonable, sin deducir los costes de transacción en que se pudiera incurrir en su enajenación. Los cambios que se produzcan en el valor razonable se registrarán directamente en el patrimonio neto, hasta que el activo financiero cause baja del balance o se deteriore, momento en que el importe así reconocido, se imputará a la cuenta de pérdidas y ganancias.

También se registrarán en la cuenta de pérdidas y ganancias el importe de los intereses, calculados según el método del tipo de interés efectivo, y de los dividendos devengados.

Para la determinación del valor razonable de los activos financieros incluidos en esta categoría e atenderá a las siguientes reglas:

a) Instrumentos de patrimonio de empresas no cotizadas: En aquellos casos en que no se hayan producido transacciones recientes del propio valor en condiciones de independencia mutua entre partes interesadas y debidamente informadas, el valor razonable se determinará, salvo mejor evidencia, utilizando el criterio del patrimonio neto o valor teórico contable que corresponda a dichas inversiones en el patrimonio neto de la entidad (o del grupo consolidado), corregido en el importe de las plusvalías o minusvalías tácitas, netas de impuestos, existentes en el momento de la valoración.

En relación a las plusvalías tácitas, se distinguirá entre:

- 1) Plusvalías tácitas imputables a elementos patrimoniales concretos de la entidad o grupo consolidable, que sólo podrán considerarse como tales si hubieran sido identificadas y calculadas con periodicidad anual y estén verificadas por experto independiente o, en caso de inmuebles, mediante tasación de una sociedad de



erregistratutako balorazio independentea eta ebaluazioaren unean mantentzen diren bitartean.

- 2) Ondare elementuei egotziezin ez diren gainbalio tazituak edo taldearen bateratutako aktibo espezifikoaren edo aktibo ukiezinekin erlazionatuta dauden gainbalio tazituak, soilik kontuan hartu ahal izango da, transakzioaren prezioaren zati gisa, eskuratze-unean eta ondorengo balorazioetan jarraitzen du, betiere bere eraginkortasunari buruzko arrazoizko zalantzak ezin baitira ulertu.

Horrez gain, jasotako dibidenduak, kapitalaren akzioen murriztapeneko ekarpenen itzulkina eta akziodun edo parte-hartzaileen beste banaketa batzuk, baita harpidedunen eskubideen prezioen salmentaren zenbatekoa edo beraien segregazioa salbuetsita ere, horien balioa kalkulatu da formula batzuk aplikatuz Orokorrean onartutako balioa, zerrendatutako enpresen kapitalaren akzioen arrazoizko balioa gutxituko da, dagokion eskubidea adieraziko den unean edo eragiketa horiek eraginkorrako bihurtzen den unean.

Kontuan hartu beharko lirateke ere, inbertitutako sozietatearen kontuak ikuskatzen ari diren azken ekitaldiari dagokion auditoretza-txostenean agerian uzten diren doikuntzak ikuskapen-txostenean kalkulaturiko balore teoriko kontablea.

Aurrekoaren gorabehera aparte, ohiko praktikan beste eredu eta balorazio teknikak erabili ahal izango dira, baldin eta baloreen izaera edo ezaugarriak zuhertasun handieneko irizpideak jarraitzen ba dute konfiantzazko maila berean, inbertsioaren gauzatze estimatuaren balioa kalkulatzeko. Dagokion arrisku-kapitaleko entitatearen urteko kontuen txostenari dagokionez, irizpide alternatiboen metodologia aplikatu behar denaren araberakoa azaldu behar da nahitaez, bere erabilera

tasación independiente inscrita en el Registro Oficial del Banco de España, y siempre que subsistan en el momento de la valoración.

- 2) Plusvalías tácitas que no sean imputables a elementos patrimoniales concretos de la entidad participada o su grupo consolidado o que son relativas a inmovilizados intangibles, que sólo podrán considerarse como tales cuando, formando parte del precio de la transacción, hayan sido identificadas y calculadas en el momento de la adquisición y subsistan en el de la valoración posterior, siempre que no se puedan albergar dudas razonables sobre su efectividad.

